

## ICAGI

Gobernu Batzordeak, 2020ko apirilaren 21ean egindako bileran, lehengo martxoaren 14az geroztik bizi dugun egoeran, onartuta dauden neurriak integratzeko, martxoaren 24an hartutako erabakia garatzeko eta elkargoaren elkartasun-irizpideari jarraituz, ahal den neurrian bitartekoak erabiliz aurre egiteko zailtasunak dituzten elkargokideen egoera ekonomikoa arintzeko euren jarduera profesionala mantentzeak edo berraktibatzeak, ICAGIk azken urteotan garatu duen politika ekonomikoarekin bat etorriz, doitasuna eta gastuaren kontrola ezaugarri izanik, honako erabakiak hartu ditu:

### **LEHENENGOA.- LAGUNTZA-FUNTS BEREZIA.**

**Laguntza-funts berezi bat eratzea**, gehienez **185.000 euroko** zuzkiduraz, hasiera batean behin-behinekoak diren laguntza ekonomikoak errazteko, onuradunen jarduera profesionala mantentzeko eta berraktibatzeak, behin betiko bihurtu daitezkeen arren. **Funts hori diskrezionala izango da beti, eta ez nahitaezkoa**, oinarri hauen arabera:

#### **1.- Laguntzen onuradunak.**

ICAGIko elkargokide jardule egoiliarak, baldin eta 2020ko martxoaren 14an alta emanda badaude, ez badaude lanbide-ezintasuneko egoeran, ez eta abokatutzan jarduteko desgaituta edo etenda ere, eta elkargoko betebeharrak eta kargak egunean badituzte, Elkargoak administratutako Erantzukizun Zibil Profesional aseguruaria barne, eta banaka edo taldeka jarduten badute beren kontura edo besteren kontura, esleipen-araubidean dagoen erakunde batean bilduta.

Ildo beretik, ezartzen da onuradunek ezinbestean alta emanda egon beharko dutela ICAGIko jarduneko elkargokide egoiliar gisa, eta ez dutela eragozpenik izango, 2020ko martxoaren 15etik 2021eko abenduaren 31ra arte, berariazko desgaituntza- edo etete-arrazoiak direla medio, abokatutza gauzatzeko.

Laguntza jasotzeak eta, ondoren, laguntza jasotzeko eskubidea aitortzeak ez dute inola ere eragotziko elkargoaren betebeharrak eta gainerako elkargo-kargak ordaintzea, Elkargoak administratutako Erantzukizun Zibil Profesionalaren aseguruaria barne.

Aurrekoa gorabehera, elkargokideak ez badu betetzen elkargoaren betebeharrak eta kargak egunean izateko baldintza, Elkargoak administratutako Erantzukizun Zibil Profesionaleko aseguruaria barne, jaso beharreko laguntzaren zenbatekoa gainditzen ez duen zenbatekoan, laguntza hori eskuratu ahal izango du, baina laguntzaren kargura ordaindu gabeko zenbatekoak konpentsatu ondoren geratzen den zenbatekoa baino ezin izango du eskuratu.

Era berean, familia-unitate bera osatzen duten eskatzaile bakoitzeko laguntza bat baino gehiago jasotzea bateraezina da, eta eskatzaile horiek laguntza bakarra eskuratu ahal izango dute.

## **2.- Laguntza jasotzeko baldintzak.**

### **2.1. Beren kontura edo errentak eratxikitze araubidean dauden jarduleak:**

A.- Familia-unitatea kide batez osatuta duen elkargokidea, betiere haren baliabide ekonomikoak, kontzeptu guztiengatik zenbatuta, 2020. urteari dagokion Ondorio Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa (IPREM) bi aldiz (2) edo gutxiago badira.

B.- Familia-unitatea bi kidek osatzen duten elkargokidea, baldin eta eskatzailearen baliabide ekonomikoak, banaka eta kontzeptu guztiengatik balioetsiak, 2020. urteari dagokion Ondorio Anitzeko Errenten Adierazle Publikoaren (IPREM) bi aldiz eta erdi (2,50) edo gutxiago badira (12 ordainsari).

C.- Familia-unitatea hiru kidez osatuta duten elkargokideak, baldin eta eskatzailearen baliabide ekonomikoak, banaka eta kontzeptu guztiak aintzat hartuta, 2020. urteari dagokion Ondorio Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa (IPREM) hiru aldiz (3) edo gutxiago badira (12 ordainsari).

D.- Familia-unitatea lau kidez osatuta duten elkargokideak, baldin eta eskatzailearen baliabide ekonomikoak, banaka eta kontzeptu guztiak aintzat hartuta, 2020. urteari dagokion Ondorio Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa (IPREM) hiru aldiz eta erdi (3,5) edo gutxiago badira (12 ordainsari).

E.- Familia-unitatea bost kide edo gehiagor osatuta duten elkargokideak, betiere eskatzailearen baliabide ekonomikoak, banaka eta kontzeptu guztiak aintzat hartuta, 2020. urteari dagokion Ondorio Anitzeko Errentaren Adierazle Publikoa (IPREM) lau aldiz (4) edo gutxiago badira (12 ordainsari).

### **2.2. Besteren konturako egoiliarrik:**

Aurreko 2.1. epigrafean aurreikusitako betekizunen osagarri, zeinak besteren kontura diarduten elkargokide egoiliarrei ere aplikatuko baitzaizkie, enplegu-emailak enplegua erregulatzeko hartutako neurrien eraginpean egon beharko dute, neurri horiek lanaldi-murrizketakoak, kontratua aldi baterako etetekoak edo lan-harremana azkentzekoak izan, COVID-19aren ondorioz.

## **3.- Arrazoi ekonomikoengatik baztertzea.**

Eskatzaileak banakako baliabide ekonomikorik ez duela egiaztatzeko, kontuan hartuko dira, errentez eta beste ondare-ondasun batzuez edo eskatzaileak deklaritzen dituen inguruabarrez gain, bere benetako gaitasun ekonomikoa adierazten duten kanpo-

zeinuak, eta uko egingo zaio laguntzaren esleipenari eta/edo horretarako eskubideari, baldin eta seinale horiek agerian uzten badute hirugarren puntuan ezarritako muga gainditzen duten baliabide ekonomikoak dituela.

Era berean, banakako baliabide ekonomiko nahikoak dauden baloratzeko, kontuan hartuko da ondasun higiezinaren titulartasun osoa edo partziala, betiere eskatzailearen ohiko etxebizitza ez badira, bai eta kapital higigarriaren eta higiezinaren etekinak ere.

#### **4.- Familia-unitate modalitateak.**

Familia-unitatearen kontzeptua zehazteko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan ezarritakoa hartuko da kontuan.

#### **5.- Zenbatekoa.**

Eskaera egiten duen elkargokide bakoitzari **1.140 euroko** laguntza emango zaio, ordainketa bakarrean eta behin bakarrik.

Hala ere, laguntzen behin betiko irismena hura onartzeko baldintzak betetzen dituzten eskabideen kopuruaren arabera izango da. Horiek laguntza-funtsaren balio osoa baino gehiago badira, funts hori guztien artean hainbanatuko da.

#### **6.- Eskabidea aurkezteko epea eta lekua.**

Laguntza horiek eskatzeko epea **2020ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era** bitartekoa izango da, biak barne.

Eskaerak, bere dokumentazio ta guzti, **behar bezala beteta** aurkeztuko dira [secretaria@icagi.net](mailto:secretaria@icagi.net) helbide elektronikoan, edo inguruabarrak bermatzen badute, Elkargoaren egoitza nagusian, Donostiako Mandasko Dukea 11, behea. edo Gipuzkoako lurraldeko Epaitegi Jauregietako toga-gelan, goizeko 10:00etatik 12:00etara bitartean, astelehenetik ostiralera edo postaz ere bai, posta bulegoan datatutako posta ziurtatu bidez.

Aurkeztutako dokumentazio guztia erabat konfidentziala izango da eta, Gobernu Batzordeko bost kidek osatutako Batzordeak aztertuko du. Batzordeak lehenengo eta bigarren puntuetako betekizunekin zerikusia duen informazioa eskatu ahal izango dio Elkargoari, eta Batzorde hori arduratuko da eskaera bakoitzari laguntzak esleitzeari buruzko txostenarekin edo proposamenarekin dagozkion espedienteak Gobernu Batzordeari helarazteaz honez egiaztatzeko eta behin behineko ebazpena emateko.

Laguntza-eskaera aurkezteak esan nahi du alde aurretik onartzen direla azaldutako oinarri eta irizpide horiek, eta Batzordeari dagokio horiek interpretatzea.

Balorazio Batzordea ondorengo persona titularrez edo hauen ordezkoez osatutako egongo da: Dekanordea, Finantza Diputatua eta Elkargoko Gobernu Batzordeak izendatutako hiru Diputatu.

### **7.- Laguntzak esleitzeari buruzko ebazpena.**

Eskabidean eta haren egiaztagirietan egiaztatzen bada eskatzailea lehenengo eta bigarren puntuetan zehaztutako eremuan dagoela, Gobernu Batzordeak ebatziko du laguntzaren behin-behineko **esleipena**, eta ordainketa baimenduko du. Ordainketa 2020ko uztailan egingo da, zortzigarren puntuan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

Gobernu Batzordeak uste badu eskatzaileak ez dituela baldintza horiek betetzen, beste izapiderik gabe ebazpena emango du laguntza jasotzeko eskubidea ukatzeko, eta horren berri emango dio eskatzaileari 2020ko uztailan, posta elektronikoz edo eskaeran adierazitako helbidera posta arruntaren bidez.

Era berean, gerta daitezkeen inguruabarren arabera, Gobernu Batzordeak ahalmena izango du aurreko epeak luzatzeko 2020ko irailera arte.

### **8.- Ondorengo datuak egiaztatzea, behin behineko ebazpena eta jakinaraztea.**

Laguntzaren behin-behineko esleipenerako erabakigarriak diren baldintzak, bereziki baliabide ekonomikoei buruzko informazioa, zehaztasunez betetzen direla egiaztatzeko, bereziki, aplikazio-eremu pertsonalarekin lotutako betekizunak (Lehen Oinarria) eta baliabide ekonomikoak (Bigarren Oinarria), Batzordeak dagozkion egiaztapenak egin beharko ditu. Horretarako, laguntza jasotzen duten guztiek, elkargoak horretarako errekerimendurik egin gabe, 2021eko apirilaren 15etik uztailaren 29ra bitartean aurkeztu beharko dute, 2020ko ekitaldiari dagokion PFEZaren azken aitorpenaren kopia osoa (eranskinak barne), eta horri dagokion informazio fiskalarena.

Balorazio Batzordeak Gobernu Batzordeari helaraziko dio aurreko egiaztapenen emaitza, bai eta egiaztapen horiek egitea eragotzi duten arrazoiak ere, egiaztapena egin eta behin betiko ebazpena eman dezan, gehienez ere bi hilabeteko epean, 2020ko ekitaldiari dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, eta laguntza jasotzeko eskubidea aitortuz edo ukatuz. Gobernu Batzordeak epe horretan ebazpenik ematen ez badu, laguntza jasotzeko behin betiko eskubidea aitortuko zaio, eta, kasu horretan, interesdunak hala eskatuz gero, berresteko ebazpena eman ahal izango du.

Gobernu Batzordearen behin betiko ebazpena elkargokideari jakinaraziko zaio, eskaeran adierazitako posta elektronikoz edo arruntaren bidez.

Azkenik, Gobernu Batzordeak laguntza jasotzeko eskubidea ukatzen duen behin betiko ebazpena eman behar badu, laguntza behin-behinean esleitzeko erabakigarriak diren inguruabarrak aldatu direlako eskaera egiten den unean, edo aipatutako justifikazio-

dokumentazioa ez aurkezteagatik edo garaiz kanpo aurkezteagatik aurreko egiaztapenak egin ez direlako, ordaindutako zenbatekoa itzuli beharko du, bederatzigarren puntuan zehaztutakoaren arabera.

### **9.- Laguntza itzultzea.**

Jasotako laguntzen zenbatekoa ICAGIra itzuliko da, honako kasu hauetan:

- a) ICAGIko elkargokide jardule egoiliar gisa baja emateagatik.
- b) Ebazpen judicial edo elkargoko ebazpen irmo baten bidez abokatutzan jarduteko desgaikuntza edo etete espresua.
- c) Ohiko kuotak edo ohiz kanpokoak ez ordaintzeagatik eta/edo elkargoari dagozkion gainerako kargak ez ordaintzeagatik, Elkargo bidez kudeatutako Erantzukizun Zibil profesionalerako aseguruia barne.
- d) Laguntzarako eskubidea ukatzeagatik, laguntza emateko unean egiaztatutako inguruabarrak aldatu direlako.
- e) 2020ko ekitaldiari dagokion justifikazio-dokumentazioa ez aurkezteagatik edo garaiz kanpo aurkezteagatik laguntza jasotzeko eskubidea ukatu izana.

Jasotako laguntzaren printzipala Elkargoari itzuliko zaio hilabeteko epe luzaezinean, itzultzeko betebeharra agertzen denetik zenbatzen hasita, interesen sortzapenik gabe. Epe hori igaro eta itzuli ez bada, jasotako laguntzaren zenbatekoak legezko interesa sortuko du, eta Gobernu Batzordeak ahalmena izango du ordaintzeke dagoen edozein zenbateko atxikitzeko xedatzeko itzultzera behartuta dagoenari, itzulketa aseguratzeko neurri gisa.

### **ESKATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO FROGAGIRIAK:**

- Eskaera-eredua beteta, 2020ko maiatzaren 4tik aurrera eskuragarri web gunean edo helbide elektronikoko bidez eskatuta [icagi@secretaria.net](mailto:icagi@secretaria.net) –era.
- Zinpeko adierazpena, laguntzaren beharra justifikatzeko, 2020ko ekitaldian ezin izan baitzaio baliabide propioekin aurre egin lanbide-jarduerari eusteari edo berraktibatzeari.
- PFEZaren azken aitortpenaren kopia, 2019ko ekitaldiari dagokiona, eranskinak barne.
- 2019ko ekitaldiari dagokion zerga-informazioaren kopia.
- Lan-kontratuaren kopia (besteren konturako elkargokideentzat bakarrik).
- 2020ko urtarriletik apirilera bitarteko nominen kopia (besteren konturako elkargokideentzat bakarrik).

- Hala badagokio, langabezia-sorospena aitortuta izatearen ziurtagiria, prestazioaren zenbatekoa eta iraupena adierazita (besteren konturako elkargokideentzat bakarrik).
- Enplegu-emaileak emandako ziurtagiria, eskatzaileak langabezia-subsidioaren osagarri gisa diru-kopururik jaso duen ala ez adierazten duena, bai eta zenbatekoa ere (besteren konturako elkargokideentzat bakarrik).
- Familia erroldaren ziurtagiria edo bolantea.
- Laguntzaren beharra egiaztatzen duen dokumentu osagarri oro, bai eta laguntza aitortzeko zehaztutako eremuan sartu dela egiaztatzen duena ere.

**BIGARRENGOA**- **ELKARGOKO FAKTURA, 2020KO BIGARREN HIRUHILEKOA.** 2020ko ekainaren 30ean kobratzea.

Jarduleen zenbatekoak, antzintasunaren arabera: 130.61€, 111.58€, 82.99€ eta ez-jarduleak: 80.23€.

Salbuespen gisa, berariaz eta banakako izaeraz, maiatzaren 31 baino lehen GERORATZE-inprimaki baten bidez espreski eskatzen duenari, geroratu egingo zaio eta horrela, laugarren hiruhilekoko Elkargo-kuotaren fakturarekin batera kobratu.